

*kirol* ... eta!  
**K**ittoa!  
2017-I-13 999 zkia.

*Markel  
Alberdi*

**Eibarko  
XXI. mendeko  
Olinpikoa**

**ORAIN DUZU AUKERA!**

**matrikula zabalik**

[www.aek.eus](http://www.aek.eus)

**aek**

Sostoa 1, 1. solairua Telefonoa: 943 201 379 [eibar@aek.eus](mailto:eibar@aek.eus)

# gremioen gida



943-206776



## ANTENAK

### BALATZ

Instalakuntzak eta konponketak antenak

Bidebarrieta, 37  
balatz@euskalnet.net

Tfnoa. 943 20 05 08  
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa. 943 12 73 50  
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK

943 530 356  
688 674 242  
669 934 964

### electricidad iparelek s.l.

INSTALAZIOAK ETA  
MANTENIMENDUA

iparelek@gmail.com iparelek@iparelek.com



TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

610 532 922

## IGELTSEROAK



Eraikuntza  
Erreformak  
Igeltseritza

Zure etxea, bulegoa, tailerra...  
aldatzen laguntzen dizugu  
etorkizun hobez  
goza dezazun

Azitin Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
www.irazabal.net

## ARKITEKTOAK

olatz etxeberria martinez ARKITEKTOA  
olatz@arquitectura-ei.com Tel. 649978832

estudio etxeberria

arkitektura, hirigintza eta peritazioak  
eraikin eta obretako kudeaketa teknikoak

Mekola, 7 - behea  
Tel/Fax 943 70 21 12 www.arquitectura-ei.com



## ERAIKINEN MANTENUA

### I.T.E.

INSPECCION  
TECNICA DE  
EDIFICIOS



ERAIKINEN  
IKUSKAPEN  
TEKNIKOA

### E.I.T.

info@ajtoficina.com tlf. 943 80 18 30

AJT zihurtasuna S.L.P.  
Barrena, 6 - behea ezk.

## KRISTALAK



TAILERRA: ERREKATXU, 3an

KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristaleriaacha.com

ERAKUSKETA

eta faxa: 943 203 903

Arikixaneko Zubian

## AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko arotzgia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA

EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

## ERREFORMAK

### ESTUDIOS ARRILLAGA

PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK

ROSARIO, 15 -ELGOIBAR-

605 713 168

943 744 019

## GARBIKETAK

### Limpieza Multiservicio Eibar

Superficie  
mota guztietako  
garbiketa eta  
mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 031 082

Mobila 688 609 171

www.multiservicioseibar.com Barrena, 21-1.F



## ELEKTRIZITATEA

### egoluz

ELEKTRIZITATEA S.L.

Ego Gain, 9 ac  
ego.luz@hotmail.com

677 51 24 62  
630 95 73 45  
943 20 06 97



Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Sorluze

Garbiketa eta  
mantenimendua

## PINTURAK

### baglietto

PINTOREAK

Zoru mota guztiak  
Pinturak  
Dekorazioa

Errebal, 21

Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com



Sostoa, 16 ac behea

Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900

Mobila. 656 784 396

### VICTOR GONZALEZ FRAIZ

PINTURA  
OROKORREAN

BARNE eta KANPOKO  
dekorazioa eta pintura,  
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,  
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-  
696-565394 / 943-030540  
victor-fraiz@hotmail.com

**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Jose Luis Gorostegi, Silbia  
Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA  
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**  
Maialen Belaustegi  
eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Maialen Belaustegi

**BANAKETA-ARDURADUNA:**  
Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.150 ale.

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

(\*...eta kitto! "k ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LEKAIXO.-** Ospakizunetan eta jai giroan botatzen den irrintzia, aujia. "Pozaren pozez lekaixo haundixa bota eta jatekoa okerreko ezarrittik juan jakon".

**LEKU.-** Toki, gune. "Jatetxe begetarianoan: leku ederrera etorri zara txuletia jatera!". Edukiera, gaztelerazko 'cabida'. "Gure granujiarendako lekuri ba ete dago atzeko asientuan?".

**LEKUTAKO / LEKUTAN / LEKUTARA / LEKUTATIK.-** Urrintasuna nabarmentzeko. "Lekutakua ekarri dozu emaztia!".

### astean esanak

"Houston Rocketsek NBAko bi errekor ezarri ditu: partida batean botatako (61) eta sartutako (24) hirukoenak. Marka berriek ez dute luzaro irauteko bokaziorik. Mike D'Antoni entrenatzaile berria urduri ipini ohi da erasoek hamar segundo baino gehiago irauten badute, eta haren jokalariek ere gustuko dute neurrigabekeria. Hirukoen izurritea orokorra da, eta ez da apaldiko. Horrekin lotuta, antolatzailearen rolaren eboluzioa: Isaiah Thomasek 52 puntu pilatu zituen asistentzia bakar bat eman gabe"

(DANEL AGIRRE, KIROL ZUTABEGILEA)

"Euskal Herrian ondo bizi gara, eta gaizki hiltzen gara; heriotzaren kalitatea txarra da. Pazienteen ehuneko handi bati esaten zaio: 'Oraindik ez'. Zeinek esan diezazuke noiz hil behar duzun? Nondik datorri indar hori? Sedazioa ezartzen denean, askotan berandu da: medikuek nahi dutenean. Gainera, zorte kontua da zaintza aringarri onak dituen toki batean egotea. Debate soziala hor dago eta, gizarte gisa, erantzun egin behar zaio horri; baina ikusi behar dugu, era berean, ea pazienteen arta guztiak bermatuta dauden: ea oinazea, larrimina eta gainerako sintomak tratatu diren. Lagundu egin behar zaio"

(MABEL MARIJUAN, BIOTIKA IRAKASLEA)

"Askotan esaten da reggaetonaren dantza sexista dela, baina gutxitan entzuten dut esaten punk edo ska kontzertuetan zelako dinamika sexistak dauden; bultzadak emateko modua maskulinitate tradizionalarekin lotutako eredu da. Tremenda Jauriak ondo uztartzen du aldakak mugitzeko erritmoa eta hitzak sexistak ez izatearen zilegitasuna. Su Ta Gar-en maskulinitatea hegemonikoa da: indarrak, gudariaren irudiak eta borroka politikoa ulertzeko moduak maskulinitatearekin lotutako balioekin zerkusi handia dute. Hondar oso matxista dugu gizarte patriarkal batean bizi garelako"

(JUNE FERNANDEZ, KAZETARIA)

## Famelixa Harrera programaren aurkezpena datorren eguaztenian

Babes premiñia daken haurrak etxian hartzeko prest dagozen personak erakartzeko asmuarekin, famelixa harriaren figura Gipuzkoan zabaldu nahi dabe eta, horretarako, hainbat hitzaldi informatibo antolatu dittue Diputaziñokuak. Eibarren datorren eguaztenian, 15:00etan izango da saia, Portalean. Kanpaiñaren goiburua "Benetako besarkadak" da, eta horrekin adierazi nahi dabe haur batendako zelako inportantia dan maitasuna, gertutasuna eta konpromisua eskintzen detsazen batenbat aldamenian eukitzia. Gaur egunian, Gipuzkoan 360 haur eta nerabe bizi dira harrera famelixekin, baiña holakueri harrera egitteko prest dagozen famelixa gehixago bihar dittue eta horregaittik ipiñi dabe kanpaiñia martxan. Izan be, momentu honetan 60 haur dagoz famelixa baten zain eta, premiñia etenbarikua danez, gizartiaren erantzuna ezinbestekua dala diñue. Gaixaren inguruan interesa eukiz gero, 943 11 25



22 telefonora deittuta edo familiaharrera@gipuzkoa.eus helbidera idatzita ipiñi leike arduradunekin kontaktuan.



## NAN eta pasaportia egitteko bulegua

Abenduaren 26xan egindako plenuan NAN eta pasaportia egitteko bulegua atzera be Eibarren zabalztzia bermatu eban gobernu-taldiak, "oposiziñuak aurkeztutako moziñuaren inguruan egindako testu alternatibua" onartziarekin batera. Holan, eibartarrak behin eta barriz eskatutakuari erantzungo detse eta, NAN eta pasaportia egitteko ez da herrittik kanpora jua biharrik izango, behin bulegua zabaldu eta zerbitzua Eibarren eskintzen hasten diranian. Eibartarrondako ez eze, inguruko herrixetan bizi diranendako be albiste pozgarrixa da, hiribururen batera jua barik etxetik gertuago tramitiak egitteko aukeria eukiko dabe eta.



*langabetu dagoz Debabarreneko Lanbideko buleguetan izena emonda, oin dala urtebete baiño 387 gitxiago. Azken hillabetian, dana dala, gora egin dau kopuru horrek: 35 lagun gehixago. Emakumiak nagusitzen dira hor be: 1.908 dagoz eta 1.439 gizonezko.*

## "Enplegurako bidea" programarako izena emon leike hillaren 20ra arte

Gizarte-egoera ahuleko taldiak lan munduan sartzia errazteko asmua dakan "Enplegurako bidea" programan parte hartu nahi dabenak urtarrillaren 20ra arte izango dabe izena emoteko aukeria. Ekimen horren bittartez, ehun bat personari lagunduko detse,



biharrian hastia erreztuko detsen pre-paraziñua, mailla personalian zein teknikan eskinduta. Eskaera orrixak Pegoran aurkeztu bihar dira, bihar dan moduan beteta eta inprimakian zihaztuta dagozen dokumentuekin batera. Eskaera-orrixu zuzenian Pegoran eskatu leike edo, bestela, [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) udalaren webgunian, 'Tramiteak eta zerbitzuak' atalaren barruan dagan 'Bestelakoak' azpiatalian.

**B. Sarasketa, 1 ac** **943 12 82 31**  
*Kafea, opilak, ogia, pintxoak, ardoak...*  
 Gozatu **EIBARKO PREZIORIK ONENEKIN!**  
**KAFETEGIA OKINDEGIA**  
**SUTLONDO**  
**LABADEROKUA Eguneo 06.00<sup>etatik</sup> aurrera**

[www.kolorlan.com](http://www.kolorlan.com) **667 54 89 16 (Ritxar)**  
  
**KOLORLAN**  
 P I N T U R A K

## Igogailu publikuak egunian 24 orduz martxan

Herritarrak aspaldidanik eskatutakuari erantzuna emoteko, herriko hainbat tokittan dagoazuen igogailu publikuak egunian 24 orduz erabiltzeko aukeria izango da aurrerantzian. Behin-betiko erabagixa hartu aurretik, iazko martxuan ordutegixa goizaldeko 02:00xak arte zabaldu eben, jendiaren erantzuna zelakua zan ikusteko. Ordutegixa zabalziarekin batera, igogailluen mantenimendurako zerbitzua indartuko dabe.



## Hiru Erregien kabalgotia mediatekan

Aurten be Hiru Erregien kabalgotiarekin agurtu dittugu Gabonak. Urteroko moduan Meltxor, Gaspar eta Baltasar karroza gairian herriko kaliaz ziharkatzen ikusteko aukeria izan genduan. Kabalgatan bidelagun izan zittuen antortxeekin bidia zabaltzen jua ziran

umiak, Eibarko Cielito Musika Bandako kidiak eta, iazko moduan, kalejirari ikutu magikua emon zetsen flamenko eta bestelako pertsonajien figura erraldoiak. Argazkixak ikusteko etakitto.eus webgunera sartu leike, albuma mediatekan dago eta.

## autuan

### Auzokoak-en bazkarixa

Urkizu inguruko soziedadiak (Edozer, Jaiki, Urkusu-Gain, Erdi Banda, Dorrepe, Denon Sahatsa eta Bekuak) osatzen daben Auzokoak alkartiak Gureak taillarrekuendako urtero antolatzen daben bazkarixa bixar izango da, Urkizuko Urkusu-Gain eta Erdi Banda alkarte gastronomikuetan. 1981z geroztik antolatzen daben bazkarixa Errege osteko zapatuan izaten da beti eta, goizian goizetik ekingo detse biharrari sukaldarixak, 140 bat laguneri jatekua emoteko dana preparamen. Bazkalostian, bestiak beste, dantzaldixa, zozketia eta oparixen banaketia be eukiko dabe.

### Manifarako autobusa

Sarek antolatuta bixar Bilbon, 17:30xetan La Casillatik abiatuko dan "Euskal Presoak Euskal Herrira. Derechos humanos, resolucion, paz" goiburuko manifestaziñuan parte hartu nahi dabenendako autobusa antolatu dabe (Ego-Gairetik urtego da, 15:30xetan). Izena emoteko Beleko, Depor eta Buenos Aires tabernara jua bihar da (epia gaur illuntzixan, 21:00etan amaittuko da). Txartelak 7 euro balixo da (5 euro langabetuendako).



**Funeraria-Ehortzetxe**  
**Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b> Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b> SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p>Bulegoa Bidebarrieta, 20</p>	
<p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b> <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

# Pitxiak

*Zuei esker egin ditugu hemen 33 urte!!*

*Urtarrilaren 31n bagoaz*





*Eskerririk asko danorik!!!!*

**Aprobetxatu egunotako eskaintzak!**  
**ZULOAGATARREN, 9 Tfnoa. 943 20 17 40**

## Silvia Tubia eibartarra Euskadi/Akitaniako gazte sortzailliendako programan Bordelen

Anuk Estudioko diseñadoria eta ilustratzaillia dan Silvia Tubia eibartarra Euskadiko eta Akitaniako gazte sortzaillieri zuzendutako "Vers un Ecosystème Créatif Transfrontalier. Euroeskualdeko Sorkuntzarako Mugikortasun Programa" izeneko egitasmorako aukeratu dabe eta, hori dala eta, Bordelera jua da, oingo astian han egin dan Sortzaillientzako Mugikortasun Programan parte hartzeko. Aurkeztu diran proiektu guztien artian Euskadin 4 ekimen hautatu dittue, eibartarrarena tartian. Egitasmua Eusko Jaurlaritzako 'Aquitaine-Euskadi 2016'

proiektu-deialdixaren barruan dago eta Garapen-ek, Garapen Agentzien Euskal Elkarteak abiatu dau, Debegesa, Buntzaldea-Beterri, Getxolan, Inguralde eta Oarsoaldea garapen agentzien bitartez, Bitamine Faktoriarekin eta Fabrique Polarekin lankidetzan. Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako mugikortasun programa horrek sortzaillien mugikortasuna ahalbidetuko dau, "Euroeskualdian ekosistema sortzaillia indartzeko asmuarekin". Programiak beste bi deialdi egingo dittu 2017xan. Informaziño gehixagorako [www.debegesa.eus](http://www.debegesa.eus) helbidian begiratu leike.



Anuk Estudioko Silvia Tubiarena izan da Euskaditik aukeratu dittuen lau proiektuetako bat.



## Sahararako janarixa biltzeko kanpaina

Eibar-Sahara alkartekuak, urteroko moduan, Piztu Itxaropena janarixa biltzeko kanpaina hasi dabe, Tindufen (Algeria) kanpamenduetan bizi diraneri laguntzeko. Hillaren amaiera arte jardungo dabe lagundu nahi dabenen produktuak batzen Eibar, Elgoibar, Deba eta Mendaroko supermerkausetan eta eskoletan. Eibarren, Eroskin (Urki, Ipuru eta Urkizun), El Corte Inglesian, Isasi okindegixan, Villalban eta BM supermerkaian bilduko dabe janarixa eta Elgoibarren, barriz, Eroski eta Netton. Arroza, pasta, lekaleak, azukria, atuna eta sardiña latak, olixua eta konpresak. Batutako guztiak datorren otsailaren 25ian Donostiatik urtego dabon Sahararen aldeko 13. karabanan bialduko dittue Tinduferra.



## MARIA SOLOZABAL ANTIXIA (2017-I-12)

**"Gure Bihotzeko Amatxo maitea, maite zaitugu hasieratik, orain eta betirako. Agurrik ez, gero arte baizik. Lagundu eiguzu, beti bezela. Dana maitasuna zara"**

ETXEOAK

**HILETA-ELIZKIZUNA GAUR (URTARRILAK 13) IZANGO DA, SAN ANDRES ELIZAN, ARRATSALDEKO 19:00ETAN HASITA.**



## MIREIA ORMAETXEA LUIS

2. urteurrena: 2015-I-14

**Zure argiak, zure oroitzapenak eta zure irribarre eder-goxoak gure bihotzak argitzen dituzte.**

**BETI ZUREKIN, ZURE GURASO ETA AHIZPA**

## Itsas garraioko bi kontenedore Untzagan domekara arte

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Obra Publikuak Saillak eta Emaus Fundaziñuak antolatutako "Bete dezagun bizitza oroigarriekin" kanpaiña ibiltarixa Eibarre-



ra ailegatu zan eguaztenian eta domekara arte egongo da bisitatzeko aukeria, Untzagan (jubilauen aldian). Asmua guk sortzen dittugun hondakiñak zelako arazuak eragitten ditten jendiari erakustia da, horren inguruko konzientzia hartu eta, ahal dan neurrixan, hondakin gitxiago sortzeko. Erakusketia zabaltzerakuan Jon Iraola Udaleko Ingurumen sailleko ziñegotzixak esandakuaren arabera, "egunero erabiltzen dittugun gauzak (liburuak, altzarixak, arropak...) barriro erabiltziak dakan garrantzixaz oharatarazi nahi dittu herritarrak". Herririk herri eruango daben erakusketia Emaus fundaziñuaren berrerabilittako lanekin osatu dabe eta itsas garraiorako, barkuetan erabiltzen diran kontenedore biren barruan preparau dabe. Erakusketia 11:00etatik 13:30xetara eta 17:00etatik 19:30xetara bittartian bisitatzeko aukeria egongo da.

## Markel Olano diputatu nagusixa Milaflores-en izan zan bisitan

lazko urtia amaittu aurretik, abenduaren 30ian Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusixa eta Aintzane Oiarbide Bide Azpiegitura diputatua Eibarren egon ziran, Milafloresen espaloixa egitteko biharrak ikusten. Bisitaren harira egindako adierazpeneri jarraituta, Gipuzkuako Foru Aldundixak GI-3950 errepidian, Arrate-bidetik Milafloreserako bidegurutzeraiñoko tartian espaloia egin da oiñezkuen segurtasuna hobetu nahi izan dabe. Espaloiaz gain, Arratera juaiteko bidegurutzia moldatu eta seiñaliza-ziñua egokitu dittue. Obrak 100.720 euroko kostua izan dau.



Olanok auzoko bizilagunekin berbetan egitteko aprobeixau eban.

*Bi urte pasa dira gure ondotik joan zinenetik baina egunero zaitugu gogoan.*

*Zure irribarre goxoak bizirik dirau gure artean, elkarrekin bizitako oroitzapenekin batera.*

*Urteek aurrera egingo dute eta zuk gure artean jarraituko duzu, zure adorea eta bizitzeko griña ahaztezinak baitira.*

*Maite zaitugu,  
Zure Kuadrilla!*

*Mireia Ormaetxea Luis  
2. Urteurrena  
15/01/14*



Euskal presoentzat indarrean dagoen sakabanaketa politikaren ondorioak arintzeko asmoz jaio zen Mirentxin Gidariak izeneko ekimena. Ahal den neurrian, inor bisitarik gabe ez geratzeko elkartasun keinua egiteko prest dauden boluntarioek osatzen dute elkartea eta horietako batzuren eskutik jaio zen Eibarko taldea, kideek eurek azaldu digutenez.



## MIRENTXIN EIBARKO TALDEA:

# “Mirentxin barik askok ezingo lukete kartzelara bisitan joan”



### - Zergatik eta nola sortu zen Mirentxin Gidariak proiektua?

Mirentxin gidariaren taldea 1999ko urriaren erdialdean sortu zen, presoen urruntzeak senideei eragiten dizkien zailtasunak arintzeko asmoz. Taldeak, sasoi hartan bere senarra, Manu Lejarretaetxebarria, bisitatzeraz joaten zen Mirentxinen oroi-penean hartu zuen bere izena. Mirentxin minbiziak jota hil zen, gizona oraindik preso zegoela. Gaur egun Manu aske dago.

### - Eibarren noiztik dago martxan taldea?

2015ean sortu zen taldea Eibarren. Gure herriko 4 gidari Durangoko taldean aritzen ziren eta, Eibarren taldea eratzeko aukera zegoela ikusita, jendearekin hitz egin eta horrela eratu zen taldea. Taldearen funtzioa ez da soilik gidari gisa aritzea, gure eskualdean eta inguruan Mirentxinen berri ematea ere bada: dispersioa eta preso bizi baldintzak salatzeko, senide eta lagunak asteburuoro milaka kilometro egin beharrik dakarren arriskuen salaketa...

### - Eta nolako funtzionamendua dauka?

Guztira 9 furgoneta daude eta bakoitzak kudeaketa independentea eta desberdina dauka. Guk Durangokoarekin jarduten dugu, baina gure gain hartzen ditugu urtean 4 hila-beteetako bidaiak, baita furgonetaren mantenturako behar den diruaren heren bat ere. Guztira 18 gidari gara (eibartarrak, soraluze-

tarrak, ermuarrak eta azpeitiarrak), binaka antolatuta, eta bikote bakoitzak urtean bi bidaia egiten ditu. Urtean bizpahiru bilera egiten ditugu egutegia adosteko, planteamendu ekonomikoa egiteko... eta orain zabalkundea lantzen ari gara.

### - Presoak espetxe askotan daude sakabanatuta, zenbatera ailegatzen da Mirentxin?

Mirentxin Etzerat-en bitartez koordinatzen da eta dauden premien arabera mugitzen da. Espainia zein Frantziako kartzelara ailegatzen da, normalean urrunen daudenetara edo komunikazio zaila dutenetara. Espetxe batzuetara astero joaten da eta beste batzuetara hilean birritan. Furgoneta batzuk astero espetxe berdinera joaten dira eta beste furgoneta batzuk hilean bi edo hiru espetxe desberdinetara. Gu astero Kordobara joaten gara, joateko 850 kilometro eta bueltatzeko beste horrenbeste eginda, 26-30 orduren bueltan. Barixaku gauean senide edo lagunak jaso eta Kordobaraino joaten gara. Bisitak irauten duen bitartean hostel batera joaten gara, lo pixkat egin eta, bisitan joandakoak bueltatzean, furgoneta berriz hartu eta etxera bueltan gatoz. Bi gidari joaten gara beti eta txandaka aritzen gara.

### - Maila batean garraio gastuak arindu arren, bisitak garesti iritertzen zaizkie familiei, ezta?

Bai, oso garesti. Kartzelaren arabera astero 70 eta 150 euro bitarteko gastuari aurre egin behar izaten diote, hori bakarrik garraioa kontuan hartuta. Batzabesteko datuak ikaragarriak dira. Mirentxin barik askorentzat ezinezkoa litzateke bisitan modu jarraian joatea. Horrez gain, bidaiaren lasai joateak, lagunartean beste senide edo lagunekin, lotan zein berbetan, garrantzi handia dauka. Eta ezin daiteke ahaztu hori guztia 40 minutuko bisita bat, erdian kristal bat dutela egin ahal izateko egiten dutela.

### - Eta horri errepidean dauden arriskuak gehitu behar...

Noski, astero milaka kilometro egin beharrik bere arriskuak dauzka eta, horri sabotaje, kontrol basati eta bestelakoen zama psikologikoa gehitu behar zaizkio, eta horrela urteak eta urteak... Dispersioak 16 hildako eragin ditu honezkerok, Iñaki Saez eibartarra tartean, baita ehundaka zauritu ere.

### - Urtea hasi berri dugun honetan, zer eskatzen diozue urte berriari?

Urte berriari baino, asteburuoro “azken bidaia izan dadila” eskatzen dugu. Badaki gu ez dela erreza, guk gure esku dagoena egiten dugu eta, bide horretan, bihar Bilbon burutuko den manifestazioarekin bat egiten dugu eta jende guztia joatera animatu nahi dugu, hau ere “azken manifa” izan dadin.



soilik

Hipermerkatua



Eibar

Supermerkatuak



Eibar • Ermua

# Hau da nire EROSKI !



# %25 DOAN\*

zure erosketa osoan  
Deskontu-BALEETAN itzuliko dizugu



bazkideentzat  
soilik

urtarrilak  
**14**  
larunbata

\* Deskontu-baleetako gehieneko zenbatekoa 150€ da, (gehienez 600€-ko erosketa baten truke).  
2017ko urtarrilaren 16tik apirilaren 16ra trukatu ahal izango dituzu baleak gutxienez 30€-ko erosketa baten truke, sustapenera atxikitutako EROSKI Supermerkatuetan eta 50€-ko erosketa baten truke, sustapenera atxikitutako EROSKI Hipermerkatuetan. Bezero bakoitzak egunean bale bakar bat trukatu ahal izango du. Kontsultatu gainerako baldintzak zure saltokian.  
Sustapenean ez dira sartzen hauek: gasolindegia, ikasliburuak, esperientzia-packak, telefono-kargatzeak, E-pay txartelak (aurrez ordaintzekoak), errebelatze digitala eta fidelizazio-sustapeneko produktuak.

# Eibarko XXII. KIROL SARIAK



2016 — abenduak — 31



Sari Berezia  
MARKEL ALBERDI



Areto-foballa  
JOSE JULIO ARREGI



Atletismoa  
JONE DE CASTRO



Automobilismoa  
JESUS M° DE LA FUENTE



Errugbia  
AITOR ELKORO



Eskia  
ARRATE ZAMAKOLA



Eskubaloia  
ALEJANDRO DE DIEGO



Foballa  
FRAN GARAGARZA



Gimnasia Erritmikoa  
IRATI YARZA

Urtero lez, Gabon Zahar egunean Eibarko Kirol Sarien banaketa egin zen Coliseoan. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako aukera hori aprobetxatu zen urte guztian zehar gure herriko kirol taldeek egiten duten lan nekazina saritzeko.




Mendia  
ESKOLA-IRTEERETAKO ARDURADUNAK



Golfa  
ESTEBAN IPIÑA



Herri-kirolak  
HODEI EZPELETA



Hiru-birlo  
BITTOR RODRIGUEZ



Igeriketa  
EGOITZ BLANCO



Judoa  
JOSU OLMOS



Pilota  
ENRIKE SIMON



Saskibaloia  
MIKEL IBARZABAL



Squash-a  
JOSU GALLASTEGI



Tenisa  
RUBEN PINILLOS



Tiro olinpikoa  
IÑAKI MARTIN



Triatloia  
ROBERTO GARTZIA



Txirindularitza  
VICTOR CORDON



Wu-Shu  
SULEI SAMADI



Sustapena  
AVIA



Euskera  
IGOR AMORROSTA



Silbestrismoa  
M<sup>a</sup> ASUN NOGUES



Waterpolo  
ENEKO ETA JON TREVIÑO



25 urte  
EIBARTARRAK



*Klub Deportiboko gazteenek ziurtatzen dute harrobia.*



*Simon Aldazabal igoeraren podiuma.*



*Pampo Memorialaren 6. edizioa jokatu zen Aixolan.*



*Urtegian 37 parte-hartzaile izan ziren I. Kanikrosean.*

## ATLETISMOA / TRIATLOIA


Marcial del Amok laga gintuen urtean Eibarko Klub Deportiboko atletak denboraldi bikaina egin dute. Euren artean, Odei Jainaga nabarmendu da, jabalinarekin Gipuzkoako eta Euskadiko markak eginez; horrez gain, Realarekin fitxatu duen atletak Euskadiko txapela jantzi zuen diskoan junior eta senior mailetan. Ainhoa Azpiazu, bestalde, Euskadiko txapeladun izan zen juniorretan jabalinarekin. Infantiletan Mogel-Isasiko mutilak nagusi izan ziren Gipuzkoako txapelketan eta neskak hirugarren sailkatu ziren; horko probetan Imanol Egidazu alebinak hiru txapel jantzi zituen.

Asier Cuevasek Seregnoko 50 kilometroko proba irabazi zuen. 100 kilometroko Mundialean erretiratu bazen ere, hor Aitor Bolinaga 4. izan zen berterano E mailan. Bolunburu Memori-

laren bi edizio jokatu ziren urte berean: abendukoan Eneko Agirrezabal eta Ainhoa Sanz nagusitu ziren. Herri-mailako probei dagokienez, 135 eibartar izan ziren Behobia-Donostian, 101 Lilatoian, 36 Donostiako Maratoian (Pello Osorok eta Juan Jose Malvarrek Gipuzkoako txapela jantzi zuten), 13 Azkoitia-Azpeitian eta sei Zegama-Aizkorrin. Eibarko probetan, Aitziber Urkiola eta Jokin Muñoz nagusitu ziren Galdaramiñon, Endika Donnay eta Ainhoa Sanz Asier Cuevas herri-krosean, eta GabonTrailean 35 lagun bildu ziren. Triatloian Pello Osoro izan da izen nagusia: Ansoko zuria irabazi zuen, anaia-ekin ere nagusitu zen Suitzan eta berak eta Delteco taldeak Gipuzkoako txapela jantzi zuten. 25. Eibarko Duatloia, bestalde, Aitziber Urkiola eta Oier Ariznabarretarentzat izan zen.



*Asier Cuevas, garaila Seregnonen.*



*Ainhoa Azpiazu, jaurtiketetan bikain.*



*Deltecoko duatloi-triatloilariak denboraldi guztia osatu dute.*



*Odei Jainaga.*



## PEDRO ARANZABAL GABILONDO

*2016ko abenduaren 31n hil zen, 86 urterekin*

**FAMILIAREN IZENEAN, eskerrik beroena** gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.





Contadorrek Euskal Herriko Itzulia irabazi zuen Eibarren.



Aitor Hernandez.



Eibar Energia Hiria taldeak errepideetan jarraitzen du.



Valenciaga Memoriala, afizionatuen mailako erregea.



Unai Etxebarria eta Iñaki Narbaiza.



Eneko Artetxe eta Gari Rodriguez.



Urkuzuako zikloturistak denboraldiko azken egunean.

## TXIRRINDULARITZA/MOTORRA

Debabarrenak, Eibar Energia Hiria ize-narekin, denboraldi berriari ekin zion 12 txirrindularirekin: Victor Cordon errepidean eta Onditz Urruzmendi pistan izan dira gehien nabarmendu diren txirrindulariak. Osorotar eta Iker Goikoetxea eibartarrek taldearekin hartu zuten parte Valenciaga Oroitzarrean. Afizionatuen mailako estatuko proba garrantzitsuena Jose manuel Diazentzat (Extremadura) izan zen. Eibarko Txirrindularitza Elkarteak, 90 urte betetzearekin bat, urteroko probak antolatu zituen: Udaberri Saria Iker Imazentzat (Ampo) izan zen; Otxoa Memoriala Jon Barrenetxearentzat (Baska Avia); eta San Juan Sari Nagusia Xabier Mikel Azparrentzat. Angel Lopez da elkarteko

presidente berria, Moises Artaetxeberriaren lekukoa hartuta. Txirrindularitza profesionalaren arloan, Eibar izan zen 56. Euskal Herriko Itzuliaren ardatz eta azken etapa. Alberto Contador nagusitu zen bertan. Espainiako Itzulia ere hemendik pasatu zen. Aitor Hernandezek ziklo-kros eta BTT denboraldi polita egin zuen. Automobilismoari helduta, Escuderia Eibarko Iñaki Narbaizak eta Unai Etxebarriak Espainiako Rally txapelketan hartu zuten parte eta baita Alsaciako Vosgien Rallyan ere, Gari Rodriguez eta Eneko Artetxe Atlas Solidarioaren Klasikoen Rallyra joan ziren bitartean. Aitor Montero motorzaleak, bestalde, Gaztela-Mantxako Txapelketan 3. amaitu zuen, hainbat podiumen ostean.



Monterok 3. amaitu du Gaztela-Mantxako txapelketa.

## RAMONA BERGARA BURGAÑA

(2017ko urtarrilaren 6an hil zen, 90 urterekin)


*Senideen izenean, ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.*

**Bere aldeko meza ospatuko da hilaren 15ean (domeka), 12.00etan hasita, San Pio elizan.**





Avia Eibar Rugbyko seniorrek azkenean eutsi zioten mailari.



Mikel Zabala.



Mailla berreskuratze bidean da Katu-Kale saskibaloian.



Haritza taldekoek igorako promozioa jokatu zuten.



Eskubaloiko nesken taldea indartsu dabil.



Ez Dok Eibar Rugbykoek gora egin dute.



Errugbi taldeak aurpegi berriak ekarri ditu taldera.



Gipuzkoa Kopa irabazi zuten Katu-Kalekoek.

## ERRUGBIA/ESKUBALOA/SASKIBALOA

Errugbian, senior mailako lehen taldea larri dabil azken denboraldietan mailari eusteko eta, azkenekoan ere, A Coruñan irabazitako azken partiduan eutsi zion Ohorezko B mailari. Gaston Ibarburu teknikari berria etorri da eta hainbat aldaketa egin dira klu-bean. Nesken Ez Dok taldeak gora egin du nabarmen eta sailkapeneko erdialdean dago. Cristina Guntin, Amaiur Mayo eta Lucia Moya Euskadiko selekzioarekin txapeladak izan ziren Autonomikaren arteko B mailan. Harrobi lan bikaina jarraitzen dute egiten: 10, 12, 14 eta 16 urtetik azpikoe-kin osatutako taldeekin.

Eskubaloian, Somos Eibar lehen taldeak laugarren amaitu zuen azken denboraldia eta oraingoan, zortzi ba-

jarekin, bere multzoaren erdialdean dago kokatuta. Bigarren taldeak, Haritzak, ezin izan zuen promozioan 2. Maila Nazionalera igo. Talde horretako jokalaririk batzuk lehenengora egin dute jauzi eta hori igarri dute aurten. Mikel Zabalak maila bikaina erakusten jarraitzen du eta, Espainiako jubenilekin jokatzeari aparte, Euskadiko absolutekin ere parte hartu du. Nesken lehen taldea gero eta sendoago dabil Euskadiko txapelketan, erdialdean sailkatuta.

Saskibaloian, Katu-Kale maila galdu bazuen ere, berreskuratze bidean doa: denboraldi honetan ez du oraindik partidurik galdu eta lider sendoa da 3. mailan, Gipuzkoako Kopa irabazteaz gain.



# ZURICH

## Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

## FOBALLA/ZALETUAK/ARETO



Jubenilen Eibar Urkok Euskadiko Kopa irabazi zuen.



Foball-zaletuak Kirolbet.es sariak banatu zituen.



Areto-foballeko Debarrenako kadete mailako taldea.




Udakoaren atzetik, Gabonetako Kanpusa antolatu da.


Eibar FT-k bide onean dihardu 1. Mailan jokatzen duen hirugarren denboraldian. Amaia Gorostizak Alex Aranzabalen tokia hartu du klubaren presidente karguan. Belaunaldi berriei begira, Udako II. kanpusaren ondoren, Gabonetako I. Kanpusa etorri da. Nesken talde nagusia bosgarren doa 2. Mailan eta Euskadiko Koparen finala jokatu zuen. Eurek irabazi ez zuten kopa hori bereganatu zuen jubenilen Eibar Urkok. Eta beteroen taldeak Genevako torneoa irabazi zuen. 3. Mailan jokatzen duen Vitoria hitzartutako taldea igotzeko promoziorako postuetan dago. Zaleuei dagokienez, Eskozia la Bravak 15. urteurrena ospatu zuen eta SD Eibar-ko Lagunak, bestalde, 3.000 kidezik gora ditu Facebook-en. Herriko beste klubeen arloan, Urko14 - Alkideba Eibar Urko bihurtu eta Eibar FT-

ren barnean dago. Urkik eta Eibartarrak-ek foballa sustatzen jarraitzen dute, gazteentzako hainbat talderekin: Urkik, gainera, berriro atera du Erregional mailakoa. Autobusa ere antolatu zen herrian Manixen Tudelano promozioan ikusteko.

Foball-zaletuan, Durangok liga irabazi zuen eta baita Kirolbet.es saria ere, Ermuko Sagarrari gailenduz. Kontent Kopako txapelkun izan zen eta Jose Luis Manzano omendu zuten foball-zaletuan egindako 30 urteengatik. XIX. Foball-7 txapelketan, bestalde, EGS txapelkun Roketxeri irabazita. Areto-foballean, Debarrenako Concepto Egilek bosgarren amaitu zuen 2. B mailako bere multzoan eta aurtien bide beretik doa. Debarrenako infantilak, bestalde, finalaren ateetan gelditu ziren.




Eskozia la Bravak 15 urte bete zituen.



Nesken talde nagusia sendotu da 2. Mailan.



Beteroen taldeak Genevako torneoa irabazi zuen.



Jose Luis Manzanos.



**Olabarria** AUTOBUSAK

**BERTOKO ETA NAZIOARTEKO TXANGOAK**

Besaide, 11. ELORRIO  
 Tel. 607 - 41 06 21 (Eibar) / 94 - 623 16 47 (bulegokoa) / joxean@jolabarria.com



SD



YOEL, RIVERA, LEJEUNE, KIKE G., FRAN RICO, DANI GARCÍA, M.  
G. ANDUEZA, A. GANDIAGA, U. ORMAZABAL, T. PEÑALBA, A. FERNÁNDEZ, T. RUIZ, J.L. MENDILIBAR, A.  
JUNCÀ, ARBILLA, NANO M., ESCALANTE, SERGI ENR

**ZORIONAK** ETA **URTI**



2016/17

# EIBAR



 Santander

*E. RAMIS, GÁLVEZ, M.M. DOS SANTOS, BEBÉ, ADRIÁN, RIESGO  
GOROSTIZA, I. BEA, A. AZKARGORTA, J. ANUZITA, M. SANCHEZ, B. JUL, X. MORENO, M. CALVO, ZAPICO  
MICH, A. LUNA, CAPA, JOTA, INUI, R. PEÑA, P. LEÓN*

# E BERRI ON!





San Migeleko jaietan giza proba antolatu zuten.



Policlinica Gipuzkoa Saria jokatu zen sanandresetan.



Mikel Urkia lider izan zen Gipuzkoako txapelketan.



Gazteenek saiatu ziren sanjuanetan arkuarekin asmatzen.

## HIRU-TXIRLO/HERRI-KIROLAK/EHIZA

Hiru-txirloan txapela janzteko ateetan geratu dira Asola Berriko partaideak: Gipuzkoakoan Ganix Rodriguez azpitxapeldun izan zen, eta Euskadikoan Bittor Ugarteburu postu berarekin konformatu behar izan zen. Beñat Gomez "Beltza"-rentzat izan zen, bestalde, Arrateko bolatokian jaietan jokatutako tiraldia.

Herri-kirolen arloan, Jose Martin Bustinza "Tubi"-k errege izaten jarraitzen du lastoa jasotzen eta botatzen; zaila izango da bere markak haustea, Azitaingo jaietan erakutsi zuen moduan. Hodei Ezpeleta aizkolariak, 17 urterekin, 2. mailako Bizkaiko txapela jantzi zuen eta progresio bikaina darama. Sanisidroetan eta Sanandresetan jokatzen diren aizkolarien arteko torneok indar handia dute, horren adibide Bihurri-Vicente bikoteak irabazitako

Policlinica Gipuzkoa Saria. Sanjuanetako Euskal Jaialdiak ere jende asko batu zuen, jokatu ziren proba desberdinak jarraitzeko. Gauza bera Euskal Jaiaren inguruan T. Etxebarrian eskainitako erakustaldian.

Ehiza eta arrantzaren arloan, Diana elkartekoek bazkideentzako lehiaketekin jarraitzen dute, tartean urteroko barbo arrantzarekin. Jose Luis eta Iñigo Gisasola aita-semeak nagusi izan ziren, beste behin, ehiza txikiko eskualdeko txapelketan. Eta Iker Cenzualek bigarren bez irabazi zuen San Huberto lehiaketa. Silbestri moari dagokionez, Jose Luis Fernandez ezin hobeto ibili da, Espainiako txapelketara iristeraino: garaipen askoren artean, Deban Euskadiko txapela jantzi zuen. Dinbi-Danbakoek Sanjuanetako 25. Tiro txapelketa antolatu zuten.



Gisasolatarrak nagusitu ziren ehiza txikian.



J.L. Gonzalez nabarmendu ziren.



Asola Berri punta-puntan jarraitzen du hiru-txirloetan.



J. Martin Bustinza "Tubi".



## Jon Arruabarrena Garcia

1. urteurrena (2015-XII-31)

Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez.  
Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun  
ilusioa eta bizipoza.

ZUREKIN DIREN GUZTIAK





Garbiñe Muguruza azken Roland Garros-ean nagusitu zen.



Miguelak 98 urte egin ditu.



Pilota Eskolan gaztetxo askok eman dute izena aurten.



Esteban eta Sergio Ipiña golfariak.



Alberto Ferreiro, Euskadiko txapeladuna.



Ruben Pinillos azpitxapeldun izan zen Elgoibarren.



Astelena: jaialdi gutxiago, baina ikusle gehiagorekin.



Eibarko squashlariak nagusi Euskadiko beteranoetan.

## PILOTA/PADELA/TENISA/SQUASH/GOLFA

Pilota Eskolan aurten izena eman duten 40 gaztetxoekin ea bidea egiten duten kirol modalitate horrek indarra hartzeko. Klub Deportiboko pilotarien artean, Unamunzaga-Lantz bikoteak lortu zuen Kluben Arteko Torneoan mailari eustea eta, gazteagoen artean, Azkargortak eta Sanchezek aurre-rapausuak ematen dihardute. Deporren Eguneko Caelo torneoan Camina, Tajuelo, Abalos eta Azkargorta izan ziren. Pilota profesionalaren arloan, Aspe enpresak Astelena 13 jaialdi programatu zituen azken denboraldian, aurreko urteetan baino gutxiago, baina ikusle gehiagorekin, eta Gabonetan beteta egon zen. Erretiratuta dagoen Irujo Eibarren izan zen, berari buruzko erakusketa batekin.

Eibarko Kirol Patronatoak padelari indarra eman dion azken denboraldian, Alberto Gonzalez eta Etxaide txapeladun izan ziren Elgoibarko torneoan, iaz lortutakoa berretsiz.

Tenisari helduta, Eibarko Tenis txapelketa abiatu zen azken urtean, Unbe Tenis Klubeko Ruben Pinillos azpitxapeldun izan zen Elgoibarko 40x15 torneoan eta, horrez gain, Eibarko raketisten erakusketa izan zen ikusgai. Squash-ean benetako potentzia dugu Klub Deportiboan: Alberto Ferreirok Euskadiko txapela jantzi zuen, gauza bera Salgadok eta Cabanillasek beteranoetan eta Eibarko squash taldea Euskadiko azpitxapeldun geratu da. Golfetan, Jose Esteban eta Sergio Ipiñak Gipuzkoako txapela jantzi dute.



## MANUEL ALONSO ZUBEROGOITIA

(2017-I-5)

**Negu honetan laga gaituzu, Manolo. Egunero izango zaitugu akorduan, zurekin pasatutakoak ederrak izan dira-eta.**

ESKERRIK ASKO, AITXA

Domekan, hilaren 15ean, **irteera-meza** ospatuko da, 12:00etan hasita, San Pio parrokiari



Boxeo eta sanda borroka egin ziren sanjuanetan.



Enara Zufiria.



Ipuru gimnasia erritmikoa: dominak eta dominak.



Badira beteranoak Kalamua klubeko judoken artean.



Jiu-jitsuko Espainiako II. Kopa iragartzen.



Hoyostarrek gora egin dute karatean.



200dik gora kirolari bildu ziren Kiroldegiko jardunaldian.



Maila guztietako gimnastak nabarmendu dira aurtien ere.

## GIMNASIA/JUDOA/KARATEA/WU-SHU/BOXEOA

Ipuru Gimnasia Erritmikako klubak lehen mailan jarraitzen du hainbat mailatan osatutako taldeekin. Azken denboraldiko garaipen garrantzitsuen artean, Espainiako txapelketan Elena Sudupek oinarritzko kadeteak lortutako zilarra nabarmendu dezakegu, Elene Varelak maila berean eskuratutako Euskadiko txapelarekin batera. Gipuzkoako amateur txapelketan 32 domina ekarri zituen Ipuruak Eibarrera, infantil A mailan lortutako taldekako Gipuzkoako txapelarekin batera. Infantil horientzat izan zen Euskalgym-a ere.

Eta, euren lan ikusgarria kaleratzeko, Gimnasiaren I. Eguna antolatu zen Untzagan, 10 orduko jardunaldian. Horrez gain, Enara Zufiria Euskadiko txapelduna izan zen Ordiziarekin.

Judoan eta karatean geratu barik jardun du denboraldi guztian Kalamua klubak. Jiu-jitsu modalitatean, Nekane Muguruzak, Iker Martinezek eta Julen Ramonek urrezko dominak irabazi zituzten Espainiako Kopan, eta baita Javier Lasak seniorretan eta Iker Martinezek juniorretan ere. Beste hainbat torneoren artean, Eibarko Hiria jokatu-tako asteburuan 200 judoka izan ziren Eibarren. Eta Espainiako Kopa bigarren aldiz ekarri zen Eibarrera. Eta Manu Agirre estatuko lehena izan zen diploma jasotzen Tokion. Karatean, Xuban Hoyosek gerriko beltza lortu zuen.

Wu-shu modalitatea lantzen jarraitzen dute Ramon Quinaren Ttatt gimnasion eta boxeo eta sanda modalitateko borroka izan ziren sanjuanetan.



## Julio Lapeyra Guisasola

6. urteurrena (2011-01-14)

**BETIRAKO GUREKIN**

ETXEKOAK

## MENDIA/IGERIKETA/WATERPOLOA



Urbateko igerilariak gazetetik hasi dira irabazten.



Klub Deportibokoek mendi irteerakin jarraitzen dute.



Mailari eutsi zioten Anartz Mitxelenaren agurrean.



Pello Osoro garaile izan zen Ansoko eski proban.

Klub Deportiboko Mendi Taldekoek iaz agur esan zioten Ardaia eta Arrainen Bidaia eta gero bost etapetan osatu zuten Kantabria Mendilerroko Zeharkaldiari. Aurten ere mendiko egutegi bikaina prestatu dute eta horko izarra **Bizkaiko Bira** izango da: 18 etapetan, horietako 13 aurten egitekoak. **Jende guztientzat dago zabalik** (zailtasun teknikorik ez dago mendian dabilentzat), batzbeste 20 kilometrokoak eta 5-6 ordutan egitekoak. Bihar lehen etapa egingo dute (Eibar-Kalamua-Ondarroa) eta hurrengo zapatuan, 21ean, bigarrena (Ondarroa-Otolo-Ispaster). **Izena emateko: martitzen eta egunetan (19:30-20:30), Deporren.**

Igeriketan, Markel Alberdi olinpikoa alde batera, badira maila bikainean diharduten eibartarrak. Horrela, Ander Romarate -ohituta gaituenez- Euskal Herriko txapeldun izan zen berriro. Gauza bera eskuratu zuten Jon Osak eta Maite Barruetabeñak distantzia luzean. Eta gero eta indar handiagoa hartu duen Flysch Beltza jokatu zen. Waterpoloan ikaragarritzko aurrerakada eman du Urvat-Urkotrik-ek Davide Cerchiren eskutik: emakumez-

koen taldea sortu dute eta lider da egun Euskal Herriko 1. Mailan, maila bereko gizonezkoen taldea goi aldean dabil iaz mailari doi-doi eutsi ondoren, bigarren taldea erdialdean dago sailkapenean eta kadeteak, infantilak eta eskolarrak liderrak dira. Horrez gain, Urvat Master talde berria sortu dute. Klub Deportiboko Urpekoen batzordeak, bestalde, urpekari titulua lortzeko ikastaroa antolatatu zuen. Eta Kirol Patronatoak surf-a martxan ipini zuen.




Waterpoloan harrobi bikaina landu dute.



Urpekari titulua lortzeko ikastaroa egon zen.



64 eibartar izan ziren Antzuolako eskolarteko irteeran.



Ander Romarate.

# MILA ARRIETA ZUBIMENDI

(3. urteurrena: 2014-I-15)




**"URAK DAKARRENA  
 URAK DAROA  
 ZUK EMANDAKOA  
 GUREKIN GERATZEN DA"**



Igeriketari eskainitako bizitzak puntu gorena izan du 2016an Markel Alberdientzat. Eibartarra Rio de Janeiroko Joko Olinpikoetan izan zen abuztuan, azal eta oroimenean beti izango duen gertakizuna. Poza nagusi Brasil aldean, baina urtea ez da batere erraza izan Alberdientzat. Igeriketarekin haserretzeraino iritsi da, bere pasioa izan den horretatik aldentzera. Madrilgo goi-mailako kirolaren exijentziak utzi eta Eibarren dugu orain, bitzta lasaiago baten bila.

**MARKEL ALBERDI (IGERILARIA):**

## “Hiri Olinpikoan Bolt bezalako kirolariekin egotea surrealista izan zen”



**- Nekez ahaztuko duzu 2016a...**

Bai, oso urte berezia izan da. Alde positiboak izan ditu, beste batzuk negatiboak, baina ahazteko zaila izango dela, hori ziur.

**- Alde mingotsetik hasiko gara. Zein gauza negatibo aipatuko zenituzke 2016tik?**

Gauza negatiboena izan da asko gozatzan nuen zerbait, igeriketa, obsesio bihurtu zela niretzat. Horrek estres asko eta antsietatea sortu zizkidan eta, ondorioz, nekatzen joan naiz eta oso gogorra egin zait dena. Nire buruaren kontra joatea zen nire egunerokoa. Nola hala aurrera jarraitzea lortu nuen Rioko Joko Olinpikoetara joateko helburuarekin.

**- Gogorra zara zure buruarekin, zorrotzegia?**

Bai. Konturatu naiz nire izaeraren arazoa hori dela. Gauzak ondo doazenean ona izan daiteke, dena kontrolatu eta aztertzen duzulako, baina azkenean autoexijentzia hori obsesio bihurtu zen, perfekzionismora eraman ninduen eta neurritik irten nintzen.

**- Merezi izan dizu zure buruarekin izan duzun zorrotzasun horrek?**

Bai, noski. Bidean asko ikasi dut. Aipatu dudan nire izaeraren alde hori aldatzen saiatu behar naiz, baina nire ametsa bete izan ahal dut: Joko Olinpikoetan lehiatzea.

**- 2016ak 366 egun izan ditu, baina gehiago izan dituela iruditu zaizu?**

Oso luzea egin zait! Egoera hartan ilusioa ere galdu nuen eta, aurrera jarraitu banuen, nire betiko ametsa betetzeko helburuarekin izan zen.

**- Une mingotsak albo batera lagata, 2016. urtean oso une gozoak ere bizi izan dituzu. Rioko Joko Olinpikoetan, esaterako.**

Nire urteko helburua bertara joatea zen. Hasiara batean bakarka joatea zen asmoa, baina hainbat buelta eta gorabeheren ostean, erreleboetan hartu nuen parte. Gaizki pasatuta eta osasunarentzat txarra izan da ere, Riora joan nintzen eta izugarriko esperientzia bizi izan nuen. Hortaz oso harro nago.

**- Zer etorri zitzaizun burura Rio 2016n egongo zinela jakin zenuenean?**

Alde batetik, poz handia, zehaztutako helburua lortu nuelako. Bestetik, negoen egoeran egonda, beste hilabete batzuk gehiago modu berean jarraitzea zen: lan eta lan, antsietatearekin, erdi deprimituta... nahiko gogorra. Beraz, sentsazio gazi-gozoa izan zen. Hala ere, helburua argi neukan eta, nahiz eta jakin denbora gehiagoz sufritu beharko nuela, gerora mereziko zuela pentsatu nuen.

**- Rio 2016-en aurrean prest sentitzen zinen? Dudak zenituen?**

Mila zalantza nituen. Gainera, antsietate egoeran are duda gehiago dituzu. Ezin nuen atzera egin, beraz, eguneroko bizitzari ahalik eta ondoen egin nion aurre, ahalik eta modu positiboenean. Nire buruaren kontra lan egin nuen egunero, baina helburua zehaztuta edukitzeak lagundu zidan.

**- Nolako giroa bizi da Joko Olinpikoen barnealdean?**

Hiri Olinpikora joan aurretik Rio de Janeiroko hotel batean geratu ginen eta bertatik Kristo Berreroslea ikusten zen. Hor jabetu gi-

**URTE  
BERRI  
ON!**

Tel. 943 741 677

**50.**  
urteurrena

[www.dariobus.com](http://www.dariobus.com) - [clientes@dariobus.com](mailto:clientes@dariobus.com)



nen non geunden. Nahiz eta antsietatearekin egon eta ez guztiz ondo, polita zen han geundela ikustea. Gero, Hiri Olinpikora joan eta jantokian Bolt eta antzeko kirolariak ikustea surrealista izan zen. Rafa Nadal eta Pau Gasolekin hizketan aritu ginen eta "non ote nago!" esaten nion nire buruari.

**- Igerilekura joateko unea heltzen da orduan. Ametsa egia bihurtzeko momentua?**

Bezperan jada igeri egin behar duzula pentsatzen zabilta eta zalantzak dituzu. Burua bueltaka daukazu, presio asko gainean (bai norberarena, bai federakuntzarena, bai telebistarena), baina gutxienez badakizu olinpikoa izango zarela. Psikologoarekin landutako

gauzak martxan jarri eta ahalik eta proba onena egiten saiatzea besterik ez zen geratzen. 100 metro ziren, betikoa, baina nabari zen non geunden eta sentitzen genuen sentimendu olinpikoa.

**- Nola sentitu zinen igeri egiten?**

Hobeto sentitzea gustatuko litzaidake. Ez negoen %100era eta ez nituen sentsazio oso onak, baina egin nahi nuena egin nuen eta horregatik nago harro. Nire estrategia gauzatzeko gai izan nintzen eta ia nire marka onena berriz egitea lortu nuen.

**- Eta lasterketa amaitzean, zer?**

Pareta ukitu nuenean poz-pozik negoen. Lasaitua hartu nuen lan ona egin nuelako,

igerian disfrutatu egin nuen eta oporrak nituen aurretik. Gero 8 egun geratu nintzen Rion eta esperientzia asko gozatu nuen.

**- Eibarrera bueltatzeko erabakia orduan hartu zenuen edo lehenago?**

Aurretik hartutako erabakia zen. Igeriketarekin oso erreta nengoen. Buruz, emozionalki eta fisikoki asko birrindu nuen neure burua, eta atsedena edo aldaketa bat behar nuen.

**- Nabari duzu aldaketa?**

Zaila da aldaketa hau ere. Orain ez daukat presiorik, baina ez da erraza. Etxera bueltatzea, Madrildik Eibarrera etortzea... nik Eibar asko maite dut, baina alde handia dago. Gainera, bizitza osoan zehar igeriketa maite izan dut eta orain berarekin haserre nabil. Hori ez da oso atsegingarria. Hutsunea sentitzen dut, zerbait faltan, eta hori kudeatzen ibili behar naiz.

**- Zein momentutan zaude orain?**

Batzuetan antsietatearekin egoten naiz. Aldaketa onera da, baina beti dago estres puntu bat. Izan ere, hasieran ez nekien zer egin; gero, IK4-Teknikerren proiektu bat egiten hasi naiz eta 8 ordu lanean ematen ditut, eta ez nago horretara ohituta; nire ilusio handiena zena, igeriketa, albo batera utzi dut; beraz, batzuetan erdipurdi nabil, baina argi daukat momentu honetan nahiago dudala hemen egotea eta bizitza lasaia goa eduki, eta ez Madrilen jo eta su ibili.

**- Igerilekura lehiatzeko bueltatzea aurreikusten duzu edo ez duzu horretan pentsatzen ere oraindik?**

Ez dakit. Noizean behin igerilekura joaten hasi naiz, baina buruak lehiatzea ez badit eskatzen, momentuz ez.



**Centro de fisioterapia**

**MIS**

**Manu Sánchez**

**KIROL FISIOTERAPIAN ADITUAK**

- Fisioterapia
- Osteopatia
- Kirol-masajea eta terapeutikoa
- Errehabilitazioa
- Kirol lesioen tratamendua
- Elektroterapia

**Txaltxa Zelaiko parkingetik 50 metrora, herriaren erdi-erdian**

Juan Gisasola, 14 • Tel.: 943 127 078 • EIBAR (Gipuzkoa)



**MIKEL GAZTELURRUTIA**  
(musikaria)

- *'Walk' disko berria 'The Road Less Traveled' liburuan inspiratzen dela aipatzen duzu. Zer kontatzen da liburuan?*

Inprobisazioari buruz hitz egiten da, besteak beste. Inprobisazio musikalaren eta bizitzaren arteko berdintasun handiak topatu nituen liburu honetan. Inprobisatzen dugunean erabaki onenak (edo behintzat txarrenak ez direnak) hartu behar ditugu, eta gainera, modu azkarrean. Musikan inprobisatzea, ikuspuntu psikologiko batetik, berdina da.

- *Jazz musika inprobisazioarekin lotzen dugu, baina zein puntutaraino da horrela?*

Jazz musika %95ean inprobisazioa da.

## "Jazzaren alde beroenera eramago gaitu diskoak"

Disko berria aurkeztu du Mikel Gaztelurrutia musikari eibartarrak: 'Walk'. Hiru zutabetan oinarritzen da Toño Miguel (kontrabaxua) eta Michael Oliverarekin (bateria) egindako diskoa: konposizio originalak, musika afro-kubatarreko erritmoak eta hirukotearen lan sendoa kantuen moldaketan. Guzti horren ondorioa da izaera erritmiko handiko grabaketa hau. Gaztelurrutiak, gainera, bere lagun Javier Gorosabel astrofisiko eibartarra omentzen du 'Alpha, Omega & Gamma' kantuan.

Baina, askok pentsatzen dutenaren kontra, ez da hain askea. Lan gogorra egin behar da aurretik. Askatasun hori sentitzeko oinarrizko lana bete behar dugu. Musikaren kasuan, 'tripak' ikasi behar ditugu: akordeak, esaldiak, giroak, elementu erritmiko, armoniko eta melodiakoak, etab. Batzuetan patrioiak dira, musikan entzun eta ikasi ditugun ideiak. Azken finean, inprobisatzea, hizkuntza bat erabiliz zerbait esatea da.

- *Diskoaren izenburua 'Walk' (ibili) izanda, nondik nora eramago gaitu diskoak?*

Jazzaren ingurura, bere alde beroenera. Afrikaren ukitu handia du diskoak, Kubako erritmoak (manboa, guaratxa), funk

musikan oinarritutako erritmoak eta Karibeko beste alde bateko doinuak (reggae). Gero, abesti bakoitzak bere ibilbidea egin eta nortasun propioa dauka.

- *Javier Gorosaberen omenezko abesti bat sortu duzu.*

Gero arte esateko, piano soloa egin dut bere omenez diskoa ixteko. Berak hainbeste maite zuen astrofisikaren mundua gogorarazten saiatu naiz. Ibilbide distiratsua izan zuen.

- *Diskoa aurkezteko kontzertuak eskainiko dituzue?*

Orain ari gara lan hori egiten eta denbora gutxi barru webgunean jarriko ditugu kontzertuen datak. Eibarren jotzea aurreikusten dugu.

## Eibarko Koru Gaztearen saioa Pagatxaren urteko batzarra amaitzeko



Pagatxa emakumeen elkarteak urteko batzarra egingo du datorren asteko martitzenean, 17:00etan Portalean (areto nagusian). Bazkide guztientzat zabalik egongo den batzarra amaitu eta jarraian, Eibarko Koru Gazteak saioa eskainiko du. Elena Martin Lapeyrak zuzentzen duen taldea 2008an sortu zen, Musika Eskolako ikasleek osatzen dute eta bideari indartsu ekin zion, taldea jaio eta gutxira, 2010ean, ETB1-eko "Oh Happy Day" lehiaketan publikoaren saria jaso zuen eta. Harrezgero Euskal Herriko hainbat tokitan zein Bartzelonan jardun dute kantuan gazteek. Abesbatzak parte hartu duen proiekturik berriena iazko azaroan Coliseoan estreinatu zen "Forjarien Kanta" musikala da. Ikuskizun horretan Eibarko Cielito Musika Bandarekin batera jardun zuten korua osatzen duten 14 eta 20 urte bitarteko 22 gazteek.

## Sendabelarrei buruzko hitzaldia hilaren 24an

Datorren urtarrilaren 24an, martitzena, Mentxu Amunategi bermeotarrak sendabelarrei buruzko hitzaldia eskainiko du ...eta kitto! Euskara Elkarteak Urkizun dituen lokaletan. Mundakan nekazaritza-ustiatzea dauka Mentxuk eta maillubiak, barazkiak, usain belarrak eta sendabelarrak ditu bertan. Azaroan lore-dastaketa eskaini zuen ...eta kitto!n, eta orduan izandako arrakasta ikusita, berarekin beste saio bat antolatzea erabaki dute antolatzaileek. Oraingoan sendabelarrei buruz jardungo du. Izena emateko telefonoz deitu (943200918) edo emaila bidal daiteke (elkartea@etakitto.eus).







## 20. Korrika-k apirilaren 7an zeharkatuko du Eibar

20. Korrika-k egingo duen ibilbidea aurkeztu du AEK-k. Martxoaren 30ean hasi eta apirilaren 9an amaituta, Otxandio eta Iruñea batuko ditu KORRIKAK, eta Euskal Herri osoa zeharkatuko du Batzuk lelopean. Apirilaren 7an (barixakua) 22:43ak aldera ailegatuko da Ermutik Eibarrera eta Bergarara joko du gero.



## Argazki-erakusketa berriak urtarrilerako

Betiko martxan hasi dute urtea Klub Deportiboko Argazki Taldekoek eta, euren eskutik, urtarrilean hainbat erakusketa ikusteko aukera izango da: Portalea tabernan Javier Ortizen argazki-erakusketa ipini dute, Klub Deportiboan Luis Epelderena eta Ambigu tabernan, berriz, Pilar Palaciosen argazkiak ikus daitezke. Bestalde, El Corte Ingleseko ekitaldi aretoan ere argazki-erakusketa zabaldu berri dute: Photobat Bilboko Argazki Elkartearen erakusketa kolektiboa otsailaren 7ra arte egongo da ikusgai, 11:00etatik 21:00etara.

## Aratosteetarako kartel-ehiaketa

Udalaren Kultura Batzordeak Aratosteetarako kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Lehiaketara aurkeztutako lanek derrigorrez "Aratosteak Eibarren" esaldia izan beharko dute, deialdiaren urtea (2017) azaltzeaz gain. Gaia zein koloreak norberaren aukerakoak izango dira eta neurriak, berriz, 70x50 zentimetro. Irabazleak 600 euroko saria jasoko du. Lanak aurkezteko azken eguna urtarrilaren 27a izango da, Pegoran.



## "Dudas razonables" antzezlan

Datorren asteko barixakuan, 20:30ean "Dudas razonables" antzezlan taularatuko du Banarte Antzerki Taldeak, Coliseo antzokian. Javier Liñerak zuzendutako lanean parte hartuko duten antzezleak Aitor Coello, Rafa Herce, Rosane Mateo, Loli Reñón, Dolma Romera, Isabel Rodríguez, Eduardo Falces, Eduardo Pompar, Idoia Bilbao eta Garbiñe Biurrun dira eta sarrerak 5 euro balio du.

## Otar irabazleak

Eskozia La Brava lagunarteak zozketatu zuen Gabonetako otarra saridunari eman dio: Karlos Larramendi debarrak jaso du saria, Luis Avilak saldutako 0980 erreserba zenbakia berak zuen eta. Bestalde, **Nalua** gazte feministen taldeak ere bere otarraren zozketa egin du eta zenbaki sariduna 632 izan da. Irabazlea Jone Azkarate da. Zorionak!

**AZALEA** Edergintza  
 M<sup>a</sup> Carmen Bereziartua  
 Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR  
 Tel.: 943 740 310  
 Gorputz eta aurpegi estetika

*Abian dagoen negozioa alokatzen da, erretiroa dela eta.*

**GASOLEOEN BANAKETA**

estación de servicio **kantoi** eibar

20.000 L.  
 2.000 L.

**24** ordu

**Otaola etorbidea, 13-Bis**  
 Tfnoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77

**GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOA**

## Portalearen 20 urteak bilduko dituen erakusketa zabaltzear

Aguirre y Aranzabal eskopeta-tailerra kultur gune bilakatu eta Portalea izenarekin atek lehenengoz zabandu zituela 20 urte eta lau hilabete bete dira eta, horren aitzakiarekin, datorren aste-ko barixakuan "20 urte" izeneko erakusketa inauguratuko dute. Bigarren solairuan dagoen erakusketa aretoak ehunka artistaren lanak hartu ditu urte hauetan guztietan eta urtarilaren 20tik



otsailaren 19ra ikusgai egongo den erakusketa-horietako askorentzat bilgune izatea nahi dute antolatzaileek. Horretarako Ainize Txopitea, Aitor Etxebarria, Aitor Sarrasketa, Alberto Rementeria, Alfonso Gortazar, Ana Riaño, Angel Güenaga, Bingen

de Pedro, Carlos Irijalba, Daniel Txopitea, Dora Salazar, Esperanza Zabala, Esther Galarza, Fernando Beorlegi, Fernando de Vicente, Fernando Mardones, Fito Ramirez-Escudero, Gorka Larrañaga, Ignacio Gimenez, Ines Medina, Iñaki Larrañaga,

Iñigo Garatu, Ion Erramun Etxebarria, Ismael Iglesias, Izaskun Alvarez Gainza, Jabier Villareal, Jon Zubiaur, Jose Angel Lasas, Jose Antonio Azpilikueta, Jose Miguel Utande, Jose Ramon Elorza, Jose Zugasti, Juan de la Rica, Juan Ignacio Mendizabal, Juan Luis Baroja Collet, Juan Saggastizabal, Koldo Etxebarria, Luis Fuente Garate, Maite Arriaga, Maria Romero Laspiur, Marina

Etxebarria, Marino Plaza, Mario Marini, Miriam Isasi, Patrik Grijalvo, Pello Alberdi, Rikardo Azkargorta, Rosa Valbuena, Shakti Olaizola, Susana Jodra, Txaro Arrazola, Usoa Fullaondo eta Xose Lois Carreira artisten lanak batuko dituzte.

## Coliseoaren lagunentzat deskontu-txartela

Coliseoko ikuskizunetara joaten den publikoa fidelizatzen eta jende gehiago erakartzeko asmoz Udala "Coliseoaren Laguna" txartela eskaintzen hasiko da. Txartelari esker udalak antolatutako edozein ikuskizunetan zein antzokian proiektatzen dituzten zine komertzialeko sarrerak eskuratzean %30eko beherapena lortzeko aukera izango da. Txartelek urtebeterako balio dute eta izendunak, pertsonalak eta besterenezinak izango dira. Titular bakoitzak sarrera bat eskuratzeko aukera izango



du ikuskizun bakoitzeko, eta sarrerako orduan txartela erakutsi beharko du, sarrerarekin batera. Txartel arruntaren urteko kostua 20 eurokoa da eta Coliseoaren Laguna Gazteak txartelarena, berriz, 15 eurokoa.

## Zapatuetako Tailerrak prest



Udalak Zapatuetako Tailerrak antolatu ditu aurten ere eta prest dago **negurako eskaintza**. Hainbat tailer izango dituzte aukeran 5-12 urte bitarteko neska-mutilek, adinaren arabera: Haur Hezkuntzako 3. mailakoentzat txotxongilo-tailerra prestatu dute; Lehen Hezkuntzako 1. mailakoentzat, berriz, "mache" paperarekin eskulanak egiteko tailerra; Lehen Hezkuntzako 2. mailakoentzat musika instrumentuen inguruko tailerra antolatu dute (hirurak urtarilaren 28an eta otsailaren 4an eta 11n, Portalean); Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoek dantza garaikidea ikasteko aukera izango dute (urtarilaren 28an eta otsailaren 4an, 11n eta 18an); eta Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoentzat makillaje-tailerra eskainiko dute Jazinto Olabeko ludotekan (urtarilaren 28an eta otsailaren 4an eta 11n). Izen ematea urtarilaren 22ra arte egin daiteke, internet bidez astixa.eus webgunean eta tailer guztiek 10 euroko prezioa dute. Dauden plazak baino eskaera gehiago egonez gero, zozketa egingo da eta telefonoz erantzuna emango zaie izena ematen duten guztiei. Informazio gehiagorako Astixaren webgunean begiratu daiteke.

**LEGALBIDE**  
Finka administratzailea • Abokatua  
Telf.: 608 30 85 26  
e-mail: legalbide@gmail.com  
Iker Elorza Beitia

**ITZULPEN**  
**ERA GUZTIETAKO TESTUAK**  
ITZULTZEN DITUGU,  
euskaratik gaztelerara,  
gazteleratik euskarara,  
eta ingelesetik euskarara.  
**ZERBITZUA**  
elkarte@etakitto.com



**“Yerma” antzeziana**  
**ERMUKO Antzokian**

Sutegi Antzerki taldea “Yerma” izeneko antzezanarekin bueltatuko da gaur (urtarrilak 13) Ermuko Antzokira, gaueko 22:15etik aurrera. Muntaia Federico Garcia Lorcak idatzitako lanean oinarrituta dago eta Juan Alain Dominguez Kortazar ermuarrak zuzentzen du. Sarrerak 8 euro balio du.



**“Mami Lebrun” lana**  
**BERGARAN**

Bihar, zapatua, eskainiko dute Xake Produzioak taldekoek Zabalotegi aretoan “Mami Lebrun” antzeziana, 20:00etatik aurrera. Euskalkiak izango dira pertsonaia ezberdinak bereizteko erreminta nagusia. Euskara batua eta bizkaiera batuaz gain, lapurtera eta Debagoieneko euskalkia ere entzun ahal izango dira antzezanearan zehar. Sarrerak 8 euro balio du.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

**hildakoak**

- Jose Martin Perez. 85 urte. 2016-XII-1.
- Tomas Hernandez Txurruka. 86 urte. 2016-XII-26.
- Irene Gil Parra. 91 urte. 2016-XII-27.
- Pilar Arriaga Rementeria. 84 urte. 2016-XII-27.
- Teresa Etxeberria Erkizia. 90 urte. 2016-XII-27.
- Carmen De la Vega Taborda. 87 urte. 2016-XII-27.
- Laurentina Casado Gonzalez. 91 urte. 2016-XII-28.
- Jose Antonio Anderez Roscales. 71 urte. 2016-XII-29.
- Maria Urzuriaga Ugarteburu. 87 urte. 2016-XII-30.
- Alberto Larrañaga Zubiaurre. 93 urte. 2016-XII-30.
- Clara Lazkano Barrasa. 94 urte. 2016-XII-31.
- Pedro Aranzabal Gabilondo. 86 urte. 2016-XII-31.
- Marcial Del Amo Delgado. 82 urte. 2016-XII-31.
- Antolina Garcia Paredero. 92 urte. 2017-I-1.
- Andoni Arrieta Prior. 62 urte. 2017-I-1.
- Rosario Izagirre Murua. 97 urte. 2017-I-2.
- Eusebio Etxabe Zubizarreta. 93 urte. 2017-I-3.
- Eugenio Gris Arroyo. 78 urte. 2017-I-3.
- Abilio Ircio Perez. 88 urte. 2017-I-4.
- Paco Narbaiza Gaztelu. 75 urte. 2017-I-5.
- Manuel Alonso Zuberogoitia. 85 urte. 2017-I-5.
- Ibon Areitio Oiarzun. 59 urte. 2017-I-6.
- Ramona Bergara Burgaña. 90 urte. 2017-I-6.
- Juanito Alberdi Agirregomezkorta. 98 urte. 2017-I-7.
- Jon Alberdi San Pedro. 66 urte. 2017-I-9.
- Mª Luisa Ereña Oloriz. 86 urte. 2017-I-9.
- Josefa Kortabarría Unzueta. 94 urte. 2017-I-10.
- Amaia Urkia Aristegi. 88 urte. 2017-I-10.
- Maite Alberdi Sologaitua. 73 urte. 2017-I-11.
- Vicenta Fernandez Abalos. 71 urte. 2017-I-11.

**farmaziak**

- Barixakua 13  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Zapatua 14  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Domeka 15  
EGUNEZ Mandiola (S. Agustin, 3)
- Astelehena 16  
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
- Martitzena 17  
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 18  
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
- Eguena 19  
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
- Barixakua 20  
EGUNEZ Lafuente (Sostoaarren, 10)

GAUEZ BETI - 2017AN-  
Mandiola (S. Agustin, 3)

**jaiotakoak**

- Khadim Dioue Diaw. 2016-XII-21.
- Lander Mendibil Guerrero. 2016-XII-24.
- Luka Martin Vitores. 2016-XII-25.
- Adam Zaid. 2016-XII-26.
- Ian Nieto Romero. 2016-XII-28.
- Ane Izarzuaga Elorriaga. 2016-XII-28.
- Urko Oruesagasti Telleria. 2016-XII-31.
- Ander Valade De Dios. 2016-XII-31.
- Paula Lizarralde Mediavilla. 2017-I-4.
- Amin El Assali. 2017-I-7.
- Gaizka Alberdi Rodriguez. 2017-I-8.
- Milena Alberdi Rodriguez. 2017-I-8.

**SUDOKUA**

AURREKOAREN EMAITZA

2	9	5	4	1	3	8	7	6
6	3	7	5	8	9	4	1	2
8	1	4	2	6	7	9	5	3
4	7	9	1	5	6	3	2	8
3	5	8	7	2	4	6	9	1
1	6	2	9	3	8	5	4	7
9	4	6	3	7	2	1	8	5
5	2	3	8	9	1	7	6	4
7	8	1	6	4	5	2	3	9

		7	5			2		9
	5	2	4			7		
	2	6		9				7
3				6				1
4				7		6	2	
		8			6	5	1	
7		3			2	8		

**telefono jakingarriak**

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Lurraldebus.....	900 30 03 40
Pesa.....	900 12 14 00
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63

**Barixakua 13****ERABAKI BIOT**

**19:30/20:30.** Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Deporren.

**ZINE-FORUMA**

**19:00.** "La vida empieza hoy" (Zuz: Laura Maña), Pagatxa elkartearen eskutik. Dinamizatzailerak: Izaskun Martinez Elkoro. Portalean.

**Zapatua 14****HAUR PARKEA**

**11:00/14:00 eta 16:30/20:30.** Astelena frontoian.

**AUZOKOAK**

**14:30.** Bazkaria Gureak lantegikoentzat, Auzokoak elkartearen eskutik. Urkusu-Gain eta Erdi Bana sozietateetan.

**AUTOBUSA**

**15:30.** Bilbora, "Euskal Presoak Euskal Herrira" manifestaziora joateko. Ego-Gainetik.

**GAZTELEKUA**

**17:00.** Mannequin Challenge. Indianokuan.

**UMEENTZAKO ZINEA**

**17:30.** "Super Wings ¿A dónde vamos hoy?". Doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

**KIROLA FAMILIAN**

**17:30.** Ipurua kiroldegian.

**KALEETAN KANTUZ**

**19:30.** Abesbatzaren irteera. Untzagatik abiatuta.

**Domeka 15****KIROLA FAMILIAN**

**17:30.** Ipurua kiroldegian.

**Astelehena 16****IKASTAROA**

**19:30.** Argazkilaritza ikastaroa. Arrate Kultur Elkartearen.

**Martitzena 17****IKASTEN**

**10:00.** "Caravaggio 1" hitzaldia, Ricardo Aldamaren eskutik. Hezkuntza Esparruan.

**IKASTEN**

**16:00.** Puntu-tailerra.  
**17:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

**BATZARRA**

**17:00.** Pagatxa emakume elkartearen urtekoa. Ondoren Eibarko Koru Gazteak saioa eskainiko du. Portalean (areto nagusian).

**ERABAKI BIOT**

**19:30/20:30.** Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Deporren.

**Eguaztena 18****IKASTEN**

**11:00.** "Itxura fisikoa: nahikoa garrantzia ematen diogu" hizketaldia. Untzagako jubilatuek.

**AURKEZPEN HITZALDIA**

**15:00.** "Benetako Besarkadak", familia harrera kanpainaren aurkezpena. Portalean.

**MUSEOA**

**16:00.** Ate Irekien jardunaldia. Armagintzaren Museoa.

**IKASTAROA**

**19:30.** Argazkilaritza ikastaroa. Arrate Kultur Elkartearen.

**EIBARKO KANTUZALEAK**

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

**Eguena 19****IKASTEN**

**10:00.** "Interculturalidad" hitzaldia, Virginia Basurtoren eskutik. Hezkuntza Esparruan.

**MUSEOA**

**16:00.** Ate Irekien jardunaldia. Armagintzaren Museoa.

**IKASTEN**

**17:45.** Dantzaldia. Untzagako jubilatuek.

**ODOL-EMATEA**

**18:30.** Odol-emaileentzat. Anbulatorioan.

**ERABAKI BIOT**

**19:30/20:30.** Gure Esku Dago-ren ekimenaren aldeko sinadurak. Deporren.

**KALEETAN KANTUZ**

**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

**(ANTZOKIAN) 14an: 17:00, 15ean: 17:00**

**"Orn Elurretako Erresuman"**

Zuzendaria: Aleksey Tstsilin

**zineaColiseoan**

**(1 ARETOAN)**

**14an: 17:00, 19:45**

**15ean: 20:00**

**16an: 20:30**

**"Comancheria"**

Zuzendaria: David Mackenzie



**(1 ARETOAN)**

**14an: 22:30**

**15ean: 17:00**

**"Mine"**

Zuzendaria: Fabio Resinaro



**(2 ARETOAN)**

**14an: 17:00, 19:45, 22:30**

**15ean: 17:00, 20:00**

**16an: 20:30**

**"Vuelta a casa de mi madre"**

Zuzendaria: Eric Lavaine



**(ANTZOKIAN)**

**14an: 19:15, 22:30**

**15ean: 20:00**

**16an: 20:30**

**"Silencio"**

Zuzendaria: Martin Scorsese



**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionak, **MARKEL** Uribe, hillaen 7xan hiru urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **HODEI**, astelehenian lau urte egin zenduaz-en-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, anai Ametsen partez.



Zorionak, **MAIALEN**, hillaen 3an bost urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat etxekuen eta, batez be, Jonen partez.



Zorionak, **GARAZI**, aurreko martitzenian 5 urte bete zenduaz-en-eta. Patxo potolo bat etxeko guztien eta, batez be, Juneren partez.



Zorionak, **ANER**, bixar sei urte beteko dozuz-eta! Musu haundi bat danon partez eta jaso beste bat, potolo-potolua, Liberengandik.




Zorionak, **MALEN**, bixar bederlatzi urte egingo dozuz-eta. Laztan haundi bat zure amama eta aitxitxaren partez.




Zorionak, **AINHOA**, astelehenian zure eguna ospatuko dogu-eta. Guraso, ahiztak eta bikotekidiaren partez.



Zorionak, **MAREN**, domekan bost urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **IRADI**, gure printzesak haraiñegun zazpi urte bete zittuan-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, **MALEN**, domekan bost urte beteko dozuzelako. Musu haundi bat etxeko guztien partez.




Ongi etorri, **LUR**, eta zorionak, Mikel eta Ikuska. Musu haundi bat etxeko danon partez!



Ongi etorri, **ENEKO** Sanper Romero, hillaen 11tik gurekin zagoz-eta. Zorionak gurasueri!!!



Zorionak, **JANA**, (astelehenian 9 urte egingo dozuz) eta **PABEN** osaba (martitzenian, 35). Famelixakuen partez.



Zorionak, **IKER** eta **IÑIGO**, bixak urtiak bete dozuez-eta. Laztan bana famelixa guztiaren partez.



Zorionak, **LUCAS** (abenduaren 31n, 10 urte) eta **DANELO** (urtarrillaren 2xan, 11 urte). Zein ondo pasau genduan merendolan! Musu potolo bana, bikote, famelixaren partez!!!



## MARIA LUISA EREÑA OLORIZ

*"2017ko urtarrilaren 9an, pasioz beteriko bizitza baten ostean utzi egin gaituzu, baiña egitan ez zara joan, baizik eta gure bihotzetan izkutatu zara"*

**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Baserria salgai Elgoibarko San Roke auzoan. Lur-sailarekin: 5,8 hektarea. Tel. 650-749722 eta 943-203284.

### 1.2. Errentan

- Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 697-754174.  
 - Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-252750.  
 - Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. 2/3 logealekoa. Tel. 652-532589.  
 - Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 631-252750.  
 - Pisua hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 628-747805.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

- Autoak sartzeko pabilioia behar dut: 100 m<sup>2</sup> inguruko lokala. Tel. 671-846270. Ibon.  
 - Taberna traspasatzen da Eibarren. Tel. 628-235319.

### 3.2. Errentan

- 100 m<sup>2</sup>ko lokala alokairuan Elgoibarko Sigma poligonoan. Erabilera anitza: bulego, biltegi... Instalazio elektrikoa eta urarekin. 400 euro. Tel. 686-888004.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 685-780806.  
 - Neska eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko eta dendari jarduteko. Esperientzia. Tel. 639-423493.  
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka. Tel. 602-047826.  
 - Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta kamarera jarduteko. Tel. 632-384798.  
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 652-430110.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 695-180539.  
 - Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-057185.  
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-562461.  
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 628-318570.  
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 631-247899.  
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 688-818176.  
 - Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-329868.  
 - Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko eta dendari moduan. Tel. 632-426847.  
 - Mutila eskaintzen da peoi moduan, zaintzaile jarduteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-649850.  
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 659-908513.  
 - Mutila eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 631-414397.  
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko Eibarren edo inguruan. Tel. 606-906729.  
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-804895.  
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Baita asteburuetan ere. Tel. 688-959575.  
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Esperientzia eta formakuntza. Tel. 671-989434.  
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko etabar. Tel. 656-788741.  
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Externa. Tel. 640-315602.  
 - Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Tel. 603-683176.

### 4.2. Langile bila

- Higienista behar da Ermuko hortz-klinika batean. Astero bi arratsaldetan. Tel. 652-768569.  
 - Bertoko emakumea behar da 08:00etatik 13:00etarako umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 652-658646.  
 - Estetizista behar da Eibarko zentro batearako. Bidali curriculum: esteticieneibar@gmail.com

## 5. Irakaskuntza

### 5.1. Eskaerak

- Eibarko akademiak frantseseko irakaslea behar du. Esperientzia ezinbestekoa. Bidali curriculum: irakasleeibarCV@gmail.com  
 - Alemanierazko irakaslea behar dut. Tel. 676-483118.

### 5.2. Eskaintzak

- Marrazketa Teknikoko klase partikularrak ematen dira. LH, Batxilergo eta Tekniko Mekanikoko maila guztiak. Tel. 943-121638.  
 - DBH, Batxilergo eta Unibertsitate mailetako matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Safretti bioetanol tximinia salgai. Prezio negoziagarria. Tel. 648-180634.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Abenduan Eskularen Valmassoi markako betaurrekoak (irakurtzekoak) laga zituen bertatik pasa daiteke jasotzera. Tel. 943-204000.  
 - Patinete Micro laranja galdu zen Urkizuko parkean. Hiru erroberakoa. Tel. 666-195711.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

# Urtarrilaren 9tik aurrera **MATRIKULA ZABALIK**

**16/17**  
IKASTURTEA  
**UDAL**  
**EUSKALTEGIAK**  
euskara klaseak

## **- MAILA GUZTIETAKO euskara ikastaroak**

16 urtetik gorakoentzat

	1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA	
A1	A2	B1	B2	C1	C2

- Autoikaskuntza: **Bakarkako lana, tutoretzak eta mintzasaioak** (BOGA programa)
- Etorकिनenzako harrera-ikastaroak (**AISA**)
- Azterketa prestakuntza
- **HABEko** titulu ofizialak

ordutegi zabala

### TARIFA BEREZIAK:

**%20, %50 eta %75eko deskontua**

### KONTSULTATU

## *Eibarko Udal Euskaltegia*

Bista Eder, 10 -PORTALEA-

[euskaltegia@eibar.eus](mailto:euskaltegia@eibar.eus)

Tfnoc: 943 70 09 12

Faxa: 943 82 00 89



LANEAN  
IKASKETETAN  
SARE SOZIALETAN  
EROSKETETAN  
KIROLA EGITEAN  
FAMILIAN  
LAGUN ARTEAN  
JAIETAN  
AISIALDIAN



## **FISIOTERAPIA**

### **ZENTRUA**

**Ane Mendia**


970 kol. zkia.

Arragueta, 20 - behea

943 530642



[ane\\_mendia@hotmail.com](mailto:ane_mendia@hotmail.com)



*Indiba terapia / Kirol lesioak / Masajeak / Tendinitisak  
Bizkarreko minak / Esginzeak / Etxez-etxeko zerbitzua*

**Animatu zaitez eta etorri gure instalazio berriak ezagutzera**





UNBE



ORBEA



**PADELPISTAK**



**IGERILEKUA**



**TENISPISTAK**



**SPA**



**ZORIONAK!**  
eta  
2017.  
**URTE**  
**Kirolari**  
**XOM!**



**Eibarko Kirol Patronatoa**  
Patronato Municipal de Deportes de Eibar

